



Ekzerrean Kabigorri abesbatza eta eskuinean Zoo pizti trajedunak emanaldia.

Ostiral iluntzean, eta ia ordu berean bi emanaldi eskaini zituzten herrian. Bata Brijitarren komentuan, Andrew J.P. Keelane zuzentzen duen Kabigorri abesbatzak emanaldi ederra eskaini zuen; eta bestea kulturetxean, Asier Zabaletak zuzentzen duen Ertza taldeak dantza emanaldi berezia taularatu zuen, gizakiez osatutako zoo bat ikusi ahal izan zuten ikusleek. •

Musika eta dantza

Kabigorri abesbatzaren kontzertua eta Zoo, pizti trajedunak dantza ikuskizuna izan ziren ostiralean

Rugbiari buruzko hitzaldia

Beltzak Rugby taldeak bere zilarrezko ezteiak ospatzeko erakusketa bat antolatu zuen maiatzaren erdian. Larunbatean berriz, hitzaldi bat antolatu zuten eta Iñaki Laskurain, Gipuzkoako Rugbyko Federazioko lehendakaria gonbidatu zuten. Hitzaldi bat baino, solasaldi bat izan zen. Iñakik gonbidapena eskertuz eta Beltzak taldea zorionduz eman zion hasiera hizketaldiari. Hitzaldiaren ondoren, urteurreneko ospakizunei amaiera emanaz, bazkaltzera joan ziren. •



Amaraun,
Gazte Klubak
eta Eskola
Kiroleko
jaialdiak
larunbatean /5

KIROLA ■ 2

Ostadarreko II. erregionaleko mutilek finala irabazi zuten larunbatean

KULTURA ■ 3

Zabaleta Auzoko jaiak hasiko dira asteartean eta igandera arte luzatuko dira

KULTURA ■ 6

Ane Labakak Gipuzkoako Idatzizko Bertsolari txapelketa irabazi zuen



**JUAN IRAOLA
& HIJOS S.L.**

ITURGINTZA

ITURGINTZA

GASA

BEROKUNTZA

AIRE GIROTUA



Iñigo de Loiola Kalea 8 behea
administracion@iraola.eu
Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679

Igeriketa txapelketa

XXXI. Liga probintzialeko 6. jardualdia jokatu zen

Bajak protagonista izan ziren jardunaldian emaitza onak lortu zituzten Buruntzaldea Igeri taldeko igerilariek.

400 m. estilo librean neskek ez zituzten oso emaitza onak lortu, mutilek berriz, infantil g3 kategorian Kevin Iglesias gailendu zen eta albinetan Iñigo Ibarburu.

200 m. estilotan nesketan alebin mailako Udane Hernandezek irabazi zuen eta mutiletan kategori guztietan gailendu ziren Buruntzaldeakoak: infantiletan Ibon Gonzalez, Ibon Tardio, Iker Lizeaga eta Julen Hernandez geratu ziren hurrenez hurren. Infantil g3 mailan Mikel Arribillagak lehen postua eskuratu zuen eta Iñigo Alkortak bigarrena. Alebinetan Unai Bueno bigarren geratu zen eta Daniel Lopez hirugarren.

100 m. libre proban mutilen absolutuen mailan Oier Mitxelenak irabazi zuen; infantiletan Jon Ander Kortak eta infantil g3n Unai Rodriguezek.

25 m libre proban berriz, mutiletan infantil g3 mailan Unai Rodriguezek irabazi zuen; absolutuen kategorian Oier Mitxelenak eta gazteen



Larunbateko jardunaldian bajak izan ziren protagonistak.

absolutoen Eneko Goenagak. Pozik beraz, emaitzarekin.

Gipuzkoako txapelketa

Maiatzaren 23an larunbata, Gipuzkoako Eskolarteko XXVIII. txapelketa burutu zen Azeitian.

Buruntzaldea Igeri Elkarteko gaztetxoak bertan egon ziren lehian eta alebin mailan

hiru domin eskuratu zituzten, zilarrezko bi eta brontzezko bat.

Zilarrezko dominak, Landaberriko Iñigo Ibarburuk 100 metro librean eta 100 metro mariposa probatan lortu zituen; brontzezkoa, berriz, 200 metro proban lortu zuen Garazi Alkorta Landaberriko ikasleak. •



Argazkian LOKEko atletak. Denboraldi ona egiten ari dira.

Arg.: GAF.

Herriko atletak indartsu

Herriko atletak senior mailako Gipuzkoako txapelketan lehiatu ziren maiatzaren 23an eta zortzi domina eskuratu zituzten. Horietako bat, gainera, urrezkoa izan zen, Real Sociedaden dabilen Jose Ramon Latorrek eskuratutakoa eta, beraz, hau dugu 200 metroetako txapeldun berria.

Hiru zilarrezko domina Jose Ramon berak 100 metroetan eta Donostiako taldeetan dabilen Iñigo Sevillanok 110 metro hesiak proban eta Leticia Tiatik disko jaurtiketan lortu zituzten.

LOKEk lau domina

LOKEko gazteei dagokienez, zilarrezko bi domina eta brontzezko bat ekarri zituzten Lasarte-Oriara. Zilarrezkoak Maria Monterok 400 metro hesiak proban eta Irati Larra-

ñaga altueran lortu zituzten eta Irati berak jausi hirukoitzean eta Unai Imaz 800 metro proban, brontzezkoak.

Oskar Goikoetxea entrenatzaileak adierazi digunez, azpimarratzekoa da 4x100 metro eta 4x400 metroko errelebutan lortutako 4. eta 5. postuak.

Eskolarteko txapelketa

Bestalde, Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako 4. jardunaldia jokatu zen Eibarren.

Bertan, Antoniano ikastolako Olatz Flores lasarteortarrak infantil mailako 3000 metro proban urrezko domina eskuratu zuen.

Baina ez zen domina lortzen bakarria izan, Landaberriko Ane Galardik bigarren bukatu baitzuen alebin mailako 60 metro proban. •

II. erregionaleko mutilak txapeldun

Denboraldi hasieran jarritako helburua lortu zuten larunbatean, txapeldunak izatea

Partidu oso gogorra izan zen, luzapenean erabaki zelako, baina Ostadarri hasieratik jarri zitzaion partidua alde, 3. minutuan Javi Solchagak sartutako gol bati esker. Horrela, esan daiteke lehen zatian nagusi izan zela taldea, baina bigarren zatian fisikoki zertxobait behera egin zuen eta horrek Getariak hainbat aukera sortzea ekarri zuen. Hala ere, Fran Toquero atezaina bikain ibili zen, eta Getariak sortutako hainbat aukera ederrak gelditu zituen. Baina partidua amaitzeko 5 minuturen faltan penaltia pitatu zuen epaileak Ostadarren aurka eta Getariak partida berdindu zuen.

Luzapeneko lehen zatian Ostadarrek indarrak ateratu zituen eta Eric Utielek 2-1eko azarri zuen. Fisikoki taldeak behera egingo zuela ematen zuen, baina Ostadarrek borrokan jarraitu zuen eta partida erabakitzeko Alex Rodriguezek buruz 3. sartu

zuen Manexek emandako baloi batekin. Zertxobait sufritu behar izan zuen Ostadarrek amaiera arte, baina azkenean dena ondo atera eta saria eraman zuten.

Jubenilak mailaz igo

Baina II. erregionaleko mutilak ez dira mailaz igotzen diren bakarrak izango. Izan ere, maiatzaren 23an, Ostadarreko jubenilen taldeak maila igoera lortu baitzuen.

Santo Tomas Lizeoren aurka jokaturako partidari, Gorka Belartietaren mutilek joko ona erakutsi zuten. Partida osoan aurretik egin zuten markagailuan eta nahiz eta donostiarrak berdinketa bilatu, 3 eta 2 gailendu zen azkenean. Festa handia sortu zen Michelinen.

Orain atsedenaldia dator eta hurrengo denboraldian, jubenilen ohorezko mailako taldea izango dugu, Gorka Belartietaren mutilena. •



Ostadarreko mutilek gogoa izan zuten istripuz hil zen Jon Arruti jokalaria.

Arg.: J.Tokero

Zabaleta auzoa jaietan igandera arte

Ostiralean, kantu-afaria eta dantza; larunbatean bertsoak eta roka; igandean bazkari eta erromeria

TXINTXARRI

Auzo txikia baina eskasa ez dela aldarrikatuz, bihar asteartea hasi eta igandera arte luzatuko dira Zabaleta auzoko jaia. Aurten esperantza bat daukate auzotarrek, iaz baino eguraldi hobea egingo duela, iaz euri jasa izugarria zela eta, zenbait ekitaldi atzeratu edota bertan behera utzi behar izan baitziren. Arratsaldetan, haurrentzako egitarau zabala izango da, eta asteburuan gauean ere bai, dantzaldi, bertso saio, eta rock-a besteak beste.

Ostiral gauean kantu afaria, dantza garaikidea eta dantzaldia izango dira Zabaletako plazan, larunbat gauean bertso saioa eta rock kontzertua eta igandean bazkari herrikoia orondoren erromeria. Zabaleta auzoko jaietako egitaraua luze eta zabala da, asteartetik igandera arte luzatuko da eta denetik izango da Lasarte-Oriako mendi inguruko auzo berezi honetan.

Haurrentzat hainbat gauza antolatu ditu jai batzordeak. Asteartetik ostegunera bitartean egunero, 18:00 eta 19:30

artean, eskulanak ala jolasak izango dituzte, ondoren antzerkia eta 20:00etan japoniar bonbak. Ostiralean antzerkiarekin hasiko dira 18:00etan, ordu erdi beranduago merienda banatuko da, eta 19:00etan opariak zozetatuko dira bertan diren haurren artean. Ondoren auzoko trikitilariak girotuko dute "Teresa" sorginaren jaitsiera.

Kantu afaria eta dantza

Gaueko 21:00etan hasiko da ostiraleko kantu afaria. Montexio eta Xumela abesbatzek parte hartuko dute. 23:30etan dantza garaikide emanaldia izango da eta gauerdian hasiko da Triki Hots eta Hitzartu taldeekin dantzaldia.

Larunbatean haurrentzat puzgarriak izango dira, 12-14:00 eta 16-19:00 artean. Gainera 18:30etan Hipo eta Tomax pailazoak iazko arantza aterako dute: ezin izan zuten bere emanaldia eskaini eguraldi txarra zela eta. Bestalde Joxe Miguel Aranzadiren omenez 2. eskoba eta mus txapelketak egingo dira, eskoba goizeko 11.30etan eta musa 15:30etan. Arratsaldeko 19:30etan Herri Kirolen txanda iritsiko da.



Igande eguerdikoko proba mistoan, Tellerigain, Auzokoak, Larrekoetxea-Ostadar eta Erkide taldeak arituko dira 13:00etan.

Gaueko 11etan Miren Artetxe eta Ane Labaka, Hernaniko Iñaki Zelaia eta Unai Agirreren arituko dira bertsoan, Andoni Otamendiren gaiei erantzunez. Bertso saioaren ondoren, gazte rock jaia deitu duten kontzertua eskainiko da, 00:30etik 4:00ra Mendeku Itxua eta Skasti taldeekin.

Igandean baserri giroko ekitaldiak eta erromeria izango dira nagusi eta hurbiltzen diren denei baserritarrez janzteko eskatzen diete auzotarrek.

Denetarik izango da goizeko 9:00etako diana eta auzo garbiketa txapelketatik, 20:30etako azken traka eta Teresa sorginaren agurrera: asto

taxia (goiz eta arratsalde), Landaberri ikastolako neska mutilen dantza saioa (11:00), proba mistoa (13:00), herri bazkaria (14:30) eta ondoren erromeria Olatz eta Xabirekin, toka txapelketa eta Porroten bihurrikeriak (18:00) eta azkenik Usurbilgo Txerriki taldearen kaleko emanaldia (19:00). •

Landaberriko taldea hirugarren Udaberri txapelketan

Maiatzak 23an Gimastika erritmikoko neskek egun neketsua izan zuten.

Goizean Lasarte-Oriako kiroldegian erakustaldia izan zuten eta arratsaldean, berriz, txapelketa Tolosan, Udaberri txapelketako finala.

Bertan Sasoetako alebin taldea, Enara, Leire Tejedor, Ane Martin, Naroa Sanz, Alazne eta Ainara Romero,

eta Landaberriko infantilak, Maria Millan, Ane Loiarte, Ane, Ahizpea eta Ariadne, gogor lehiatu ziren. Eta ez ziren esku hutsik bueltatu Lasarte-Oriara, infantil taldeak 3. postua eskuratu baitzuten.

Amara Calvo entrenatzaileak adierazi digunez, oso pozik geratu ziren egindako lanarekin. •



Arg.: Amaia Calvo

Brontzezko domina eskuratu duen talde infantila bere entrenatzailearekin.

Judokak dominaz gainezka

Azken asteburuetan ere, LOKEko judokak lehiaketaz lehiaketa ibili ziren, baita dominak eskuratu ere.

Batetik Alacanten kadete mailako Espainiako txapelketa izan zen maiatzaren 23 eta 24ean eta Leire Zubizarreta judoka gazteak brontzezko domina eskuratu zuen.

Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez, Amaia Curiel ere sailkatuta zegoen txapelketarako, baina belarriko lesio bategatik etxean geratu behar izan zen.

Honela, Leirenen txapelketa oso ona izan zela adierazi du LOKEko entrenatzaileak, "lehenengo borroka errez irabazi zuten. Finalaurrekoan, irabazten hasi zen, baina azkenean borroka galdu zuen."

Brontzea lortzeko borrokan, judoka katalanaren aurka lehiatu zen, eta Leire oso ondo aritu zela azpimarratu du Aristegik, "burua erabiliz eta kasu egiten merezia zeukan brontzea lortu zuen."

Gipuzkoako Txapelketa

Bestalde, maiatzak 16 eta 17,



alebin taldeak asteburu polita egin zuen. Larunbatean, Gas-teizen judo topaketa batean parte hartu zuten eta igandean, berriz, Gipuzkoako txapelketa izan zuten Hernaniko kiroldegian.

LOKEko txikiek ere dominak eskuratu zituzten eta txapelketa ere ekarri zuten Lasarte-Oriara, Oscar Garrido gaztetxoak dugu Gipuzkoako txapeldun berria. Honekin batera, Fermin Baldak zilarrezko domina eta Ander Curielek brontzezkoa lortu zituzten. •

KIROL ZERBITZUA

Kirol jardueren azterketa

Lasarte-Oriako Udaleko Kirol Zerbitzuak, kirol jarduerak antolatzen dituen Biskortzen enpresarekin batera, iraupen luzeko jardueretako erabiltzaileen posttasun maila ezagutzeko inkesta egin du.

Guztira 187 inkesta izan dira, eta azpimarratzekoa da galdetutako gairik gehienetan aurtengo nota joan den urtekoa baino hobea izan dela.

Beste behin ere, irakasleak izan dira puntuaziorik altuena jaso dutenak (8,34), honi jarraitzen diotelarik taldeko giroak (8,28), ordutegiek (7,9) eta ikastaro kopuruak (7,35).

Aipatzekoa da baita ere galdetu diren gai guztietan gaintutua lortu duela Udako Kirol Zerbitzuak, eta baloraziorik baxuena espazioarena izan dela, 6,42 notarekin.

Kirol Zerbitzuak adierazi duenez, inkestaren helburua herritarrek zerbitzuaren zein balorazio egiten duten ezagutzea gain, kirol zerbitzua hobetzea eta erabiltzaileen beharretara egokitzea da. •

Europako hauteskundeak datorren astean

■ Ezker abertzaleak *Iniciativa Internacionalista*ren alde emateko botoa eskatu du

Datorren igandean, ekainaren 7an Europako Legebiltzarreko hauteskundeak ospatuko dira eta azkenean, epaitegieta izandako hainbat hika-miken ondo-

ren, *Iniciativa Internacionalista* taldeak aurkezteko bere eskubidea berretsi du, beraz, ideologia politiko ezberdinek ordezkaritza izango dute.

Iniciativa Internacionalista taldearen aldeko botoa eskatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte Ezker Abertzalekoek aste honetan. Lehen asteartean izan zen, herriko kaleetan kartelak itsatsi zituzten. Atzo berriz, eguerdiko 12:30ean ekitaldia antolatu zuten. Bertan zergatik bozkatu behar zaion *Iniciativa Internacionalista*ri azaltzeko hainbat kide igo ziren taula gainera. Horien artean Joxe Mari Agirretxe eta Beñat Iriondo igo ziren. Beña-

tek besteak beste egungo krisia eta egoera politiko eta soziala aldatzearen beharra aldarrikatu zuten; benetako demokrazia izateko beharra, eskubide politikoak ez zapaltzea eta genero diskriminazioaren aurka egin behar dela eskatu zuten.

Ekitaldiari amaiera emateko bazkaria antolatu zuten Okendo plazan. Menu internazionala izan zuten bazkaltzeko eta edateko barrikotea. Eguraldia lagun, giro ederra izan zuten. •



Goiko argazkian ekitaldian parte hartu zuten musikariak; behekoan, Beñat Iriondo.

Udalak kredituak eskatzea onartu zen Udal Batzarrean

■ Udalaren ondarea 94 milioi eurotakoa da

Ostiralean burutu zen ez ohizko Udal Batzarrean 2009ko kredituak aldatzeko dosierria eta konpromisozko kredituak onartu ziren.

Lehenengo puntuari dagokionez eta Ana Isabel Prieto zinegotziak kredituei buruz egindako galderari erantzunez, alkateak Udalaren diru-sarrerara propioak mantendu eta kasu batzuetan handitu direla aipatu zuten eta beste erakundeek eman beharrekoak berriz kale egin dutela. Gainera, kredituak ekiditeko kudeaketak egiten ari dela azaldu zuten, esate baterako, Brigitarren komentuko arkupea mantentzeko dirulaguntza eskatzea.

Konpromisozko kredituak Atsokabarreko Zaharren egoitzako lanak eta ikastoletako mantenuari dagozkie.

“Hauek gure haur eta helduen bizi kalitatearentzat onak dira,” adierazi zuen Alkateak.



Kredituak eta ondasuna izan ziren hizpide ez ohizko Udal Batzarrean.

Lasarte-Oriako ondarea

Bestalde, Udalaren ondasun eta eskubideen 2008ko inentarioan egindako aldaketak ere onartu ziren PSOE eta EBko bozkekin eta beste zinegotzi guztiak abstenitu egin ziren.

Alkateak jakin arazi zenez, Lasarte-Oriako herria sortu zenean, Udala 66 milioi pezetarekin hasi zen lanean eta gaur egun, gutxi gora behera, 94 milioi eurotako ondarea du. •

Realaren mendeurreneko bandera Buruntzaldean



Arg.: Lasarte-Oriako Udala

Buruntzaldeko alkateak, lagunartek eta Real Sociadadeko jokariak.

Asteazkenean, Real Sociadadeko presidente den Jokin Aperribayk gonbidatuta, Buruntzaldeko alkateak Zubietako entrenamendu zentroan bildu ziren, lehen taldearen entrenamenduaren aurretik.

Alkateei eta eskualdean dauden Realeko lagunarteei mendeurreneko bandera eman zieten.

Ekitaldian lehen taldeko jokariarik parte hartu zuten

eta ohorezko aureskua ere dantzatu zen.

Bidaia Gipuzkoan zehar

Mendeurreneko bidaia Gipuzkoan zehar bukatzeaz dago. Bostgarren ekitaldia izan zen hau, Bidasoa, Urola Kosta, Deba Beherea eta Tolosaldeko eskualdeak bisitatu ondoren. Era honetara, herri gutxi batzuk falta dira Gipuzkoa guztia Mendeurrenean murgildu dadin. •

Gaztetxoan festa handia Michelinen

- Eskola Kirolaren eguna, Gazte Klubaren jaialdia eta Amaraun jaialdia batu ziren larunbatean
- Txan Magoaren ikuskizunak eman zion amaiera jardunaldiari

Gazte Klub eta Amaraun ludotekaren jaialdia eta Eskola Kirolaren Eguna elkartu ziren larunbatean, eta festa erraldoia izan zuten gaztetxoek Michelingo kiroldegian. Denetarik izan zen, eskola kirola, puzgarriak, tailerrak, zezen mekanikoa, bazkaria, panpinen emanaldia... eta egitaraua Txan magoaren emanaldiarekin borobildu zen. Ehundaka haur eta gaztetxok parte hartu zuten ekimenean.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako ikastetxeen Eskola Kirolaren festa larunbat goizean burutu zen Michelin-ko kiroldegian, urte osoko entrenamendu eta jardunaldi programari jai giroan amaiera emanaz. Besteak beste, atletismoan, saskibaloian, futboleko eta tenisaren aritzeko aukera izan zuten herriko neska mutilak.

Goizean, 10etatik 13etara bitartean atletismoa, futbola eta kirol jolasak egin zituzten Michelinen; saskibaloia berriz kiroldegian egin zuten. Bertan bazkaldu eta arratsaldean, benjaminen Michelinen tenisaren jokatzeko aukera izan zuten eta bestalde, puzgarri, tailer eta zezen mekanikoan ibiltzeko aukera eskaini zuen Gazte klubak.

Amaraun jaialdia

Gainera, Amaraun ludotekak urtero antolatzen duen jaialdia ere larunbatean burutu zen Michelingo kiroldegian bertan. Goiz eta arratsaldean, puzgarriak eta tailer ugari jarri

jarri ziren. Haurren Lur, Marko eta Eztiren aurpegiak brotzeak egin zituzten, mahai jolasetan aritzeko aukera... ez zuten aspertzeko betarik izan.

Eguerdiaren amaieran, Amaraun Klubeko bazkideek elkarrekin bazkaldu zuten. Makarroi goxoak gazteekin jan zituzten eta arratsaldean Lur, Marko eta Eztiren emanaldia ikusteko aukera izan zuten. Azkenik Amarauneko kideak ere Txan Magoaren emanaldiaz gozatu ahal izan zuten.

Eskola Kirolean, Lasarte-Orian, urte osoan zehar burutzen den programari amaiera eman zuten larunbateko festa erraldoiak. Txan Magoaren ikastetxeek antolatutako Udalarekin batera. Egun osoan zehar, kirol modalitate ezberdinetan aritzeko eta ezagutzeko aukera izan zuten adin tarte guztietako haurrek Michelingo kiroldegian. Helburua hain zuzen ere horixe izaten da, ikastetxe ezberdinetan diharduten haurrak elkar ezagutu eta euren arteko harremanak sendotzearekin batera. •




Eskola Kiroleko festan jolas ezberdinak probatzeko aukera izan zuten haurrek.



Jende ugari bildu zen puzgarri, tailer eta zezen mekanikoaren inguruan.



Txan magoak txundituta utzi zituen bertan bildutako haur eta heldu bere magia trikimailuekin.



ERREKATXO JATETXEA

JAUNARTZE ETA BATAJOETAKO MENU BEREZIAK

- Eguneko menua
- Ostiraletako menua 8 euro
- Asteburuko menua enkarguz

Oria Etorbidea 4 • Tel.: 943 365557 • Lasarte-Oria



Ane Labaka idatziz Gipuzkoako txapeldun

Eskolarteko bertso paperen txapelketan lehen saria jaso zuen ostiralean lasarteoriatarrak

TXINTXARRI

Ane Labakak aurten ere Gipuzkoako Eskola arteko bertso paper lehiaketan lehen saria jaso du. Bertsozale elkarteak, DBHko 2. zikloan eta DBH O mailan, hau da, 15 eta 18 urte bitarteko neska mutilen artean Ane Labakaren sorta aukeratu du. Donostiako Antigua-Luberri Institutuko ikasleak jaso du lehen saria eta beste lau aipamen izan dira, horien artean da Amaia Iturriotz, hain juxtu iaz Anerekin batera lehen saria jaso zuen Urretxuarrak. Besteak, Alegiako Aralar Institutuko - Iñaki Artola, Elgoibar Ikastola - Mikel Olaizola eta Tolosako Orixe Institutuko Oihana Iguaran dira.

Bat-bateko txapelketa

Gipuzkoako Eskolarteko Bat-bateko Bertsolari Txapelketa ostiralean jokatu zen Donostiako Manteo kiroldegian,

arratsaldeko 4retan hasita. 15 eta 18 urte bitarteko en sailean lagun hauek aritu ziren: Asier Azpiroz (Donostiako Antigua-Luberri), Manex Mantxola (Urretxuko Garaialde Lizeoa), Oihana Iguaran (Tolosako Orixe Institutua), Ane Labaka (Donostiako Antigua-Luberri), Mikel Olaizola (Elgoibarko Ikastola), Amaia Iturriotz (Zumarraga-Urretxuko Ikastola), Imanol Irazustabarrena (Alegiako Aralar Institutua) eta Ainhoa Mujika (Ordiziako Jakintza Ikastola).

Hamalu urte arteko gazte-txoei dagokienez, lau talde hauek jardun ziren: Goierri (Gema Urteaga, Aratz Igarzabal eta Paul Iruretagoiena); Asteasu-Alegia (Haritz Mujika, Alex Goikoetxea eta Aratz Irazustabarrena); Zumarraga-Urretxu (Leire Akizu, Beñat Torres eta Mikel Iturriotz); Hernani (Eñaut Martikorena, Elixabet Pagola, Haritz Otxo-torena eta Aingeru Otxotorena).



Ane Labakak, Iñaki Murua Bertsozale Elkarteko lehendakariaren eskutik jaso zuen saria.

Arg.: Ikastolen Elk.

Txikien mailan Asteasu-Alegiko taldeko hiru mutikoei jantzi zuten txapela.

Nagusien mailan berriz, Ane Labakak bigarren postua eskuratu zuen Amaia Iturriotzen atzetik.

Amaiak eta Anek ekainaren 20an Altsasun jokatu den Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketara joateko txartela lortu dute.

Saio majoa burutu zuten denek ere, gainera maila

nahiko parekatua zuten; Asier Azpiroz berriz, oso saio ona egiten ari zen, fresko eta azkar, baina irrista txiki bat egin eta atzean geratu zen. Oso giro polita sortu zen txapelketan. •

Euskal Herriko txokoetan barrena

Muntteri-AEK euskaltegian aulkitik zutitu gabe, Euskal Herriko txoko ezberdinetatik zehar, bidai berezia egin zuten Ander Izagirre kazetariaren eskutik, Plazaolako bidean zegoen errota edo Jaizkibeleko itsasbazterra eta bere landaretza.

Izagirrek txoko horiek zaintzen dituzten pertsonaia bereziak aurkeztu eta haien istorioa azaldu zizkien Munduaren zaintzaileak diaporamaren bidez.

Era honetara, entzumena lantzeko aukera paregabea izan zuten. •



Adi-adi egon ziren euskaltegiko lagunak Anderri entzuten.

Aste Berdea burutuko da gaurtik aurrera

Ekainaren 5ean Ingurumenaren Munduko Egunaren nazioarteko ospakizuna izanik eta Aste Berdearen egitarauaren barruan, Manuel Lekuona kulturetxean, gaur Emausek garatutako erakusketa bat inauguratu da, Lasarte-Oriako Udalaren Ingurumeneko Departamentuak antolatuta.

Berrerabilitako etxea izenburupean, etxe bateko hainbat gelatako altzariak irudikatuko dira, berezitasun batekin, altzari guztiak Emausek etxez etxe egiten dituen bilketetatik lortuak direla.

Ikusgai jarritako pieza guztiak saltzeko eskaintzen dira, baina, erosten badira ere, erakusketaren azken egunera arte ezingo dira bertatik eraman.

Erakusketaren helburua

berrerabilpena eta kontsumo arduratsua bultzatzea da, hondakinen kudeaketa onenarekin loturiko praktikak diren heinean.

Berrerabilitako etxea erakusketa herriar guztientzat zabalik egongo da gaurtik 5a arte 16:00etatik 19:30era. Ekainaren 4 ostegunean izan ezik, egun horretan 16:00etatik 18:00etara egongo da zabalik, ostean hitzaldia baitago.

Berrerabilpenean hezi

Paraleloki, LHko 8-12 urte bitarteko gaztetxoekin modu berezi batean egingo da lan. Erakusketa modu gidatuan ikusi ahal izateaz gain, tailer bat eskaintzen zaie, erabilitako kartoizko kaxetatik abiatuz objektuak egin ditzaten. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

25. URTEURRENA OSPATZEKO LASARTE-ORIAKO BELTZAK ERRUGBY TALDEAREN argazki erakusketa ikusgai egongo da. Doan. Manuel Lekuona kulturretxean, 18:00etatik 21:00etara.



Erakusketa

MARIAN IBARGOEN herritararren margoak ikusgai. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan



Osteguna, 4

Hitzaldia

HAURRAK: BEREN BURUEKIKO



Jazza Pachecoren eskutik Jalgin

PACHECO'S SHOW, jazz entzuteko aukera ederra.

OSTEGUNA 4AN, 22:30EAN
JALGI KAFE ANTOKIAN

SEGURTASUNA INDARTZEKO GILTZARRIA hitzaldia eskainiko du Josune Martiarenak, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturretxean, 18:00etan.

Ostirala, 5

Bideoforuma

TODO SOBRE MI MADRE filmaren bideoforume burutuko dute eta Pilar Arrazola antropologoa izango da gonbidatua. Emakumeen Zentro Zibikoan, 17:00etan, GAZTELANIAZ



Asteartea, 16

Hitzaldia

BESOKO UMEENTZAT ETA HAURRENTZAT MUGIMENDUAK DUEN GARRANTZIA hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturretxean, 18:00etan.

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,9 eman izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturretxea • Geltoki kalea 18

Tel.: 943 376181

Oharrak

EHNArekin bozkatu

Lasarte-Oriako Bai Euskal Herriari taldeak, datorren igandean, ekainaren 7an, burutuko diren europar hauteskundeetan EHNArekin bozkatzeko deialdia luzatzen die herritarrei.

Elikagaien manipulatuak ikastaroak

Elkolabek elikagaien manipulatuak ikastaro antolatuko ditu Osasun zentro berriko eraikuntzako bigarren solairuko balio anitzeko gelan, Kontsumoko sailaren laguntzarekin. Batetik arrisku gutxioko ikastaroa izango da, gaur da, minoristei eta elikadura dendei zuzendutakoa, ekainaren 16an burutuko da 14:00etatik 17:00etara; eta bestetik, arrisku handikoa, ostalaritzako sektoreari

zuzendua, ekainaren 17 eta 18an 16:00etatik 19:00etara. Izena eman edo informazio gehiagorako, 943 533 303 harremanetarako zenbakira deitu.

Bidea itxita

Udalak jakinarazi nahi du Zabaleta Berriko urbanizazio lanak direla eta, gaur hasi eta uztailera arte Illarraltzueta bidea itxita egongo dela, Larrekoetxetik Villa Maria Luisara arte.

Korrika 16ko zozketako saridunak

Korrikako 16. edizioko arropa erosteagatik jasotako txartelen zozketan honako zenbaki hauek atera dira: 98657, 94136 eta 80766. Saria, aurtengo korrikako arropa sorta bat da.

Enkarterrietara irteera

Maria Auxiliadoraren taldeak antolatuta ekainaren 21ean Enkarterrietara irteera bat antolatu da. Goizean Karrantza eta Pozalaguako kobazuloak bisitatuko dira eta arratsaldean Balmasedako herria. Izena emateko deitu telefono hauetakoren batera: 943 363675 (Chelo) eta 943 360042 (Ixabel).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekariaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitzak

Lasarte-Oriako Udaletxeari

Zuengana zuzentzen gara datorren 2009/10 ikasturtean musika eskolako klaseetan ordaindu beharrekoari buruzko informazioa jaso dugula jakinarazteko.

Honen bitartez, %7ko igoerarekiko dugun desadostasuna jakinarazi nahi dizuegu pairatzen ari garen krisi ekonomikoa dela eta igoera handiegia dela iruditzen baitzaigu.

Kontuan har dezazuen nahi dugu klaseetara joaten garenon artean, pentsioa %1 baino gehiago igo ez zaien jubilatuek, lana galdu duten edo lana galtzearen gurasoen umeak, edota soldata igoerak lehen aipatutako %7 horretara iritsi ez zaien pertsonak gaudela.

Klaseak jadanik garestiak direnez, kasu batzuetan ikasketa hauek uztea planteatzen ari gara.

Arazo honez gain, ez nuke irakaslegoaren gaiari buruz aipamen bat egiteko aukera galdu nahi. Urtero irakasleak desberdinak direnez, ikasteko modua ere aldatu egiten da, ohitzeo denbora bat behar izaten delarik.

Era berean, Musika Eskola diru galera bat dela ulertzen dugun arren, kulturaren aldeko gastu batzuk Udaletxeak bere gain hartu beharko lituzkeela uste dugu, erregimen Sozialista batean, besteak beste, kultura lehentasuna baita. Guztiok ez ditugu beti irabaziak lortzen, eta errudunak izan edo ez, krisia gure gain hartzen ari gara.

Zuen jokabidea moldatuko duzuela eskertuz, adeitasunez.

Musika Eskolako ikasle batzuk

Hasi da Antzerki Astea

TXINTXARRI

Asteazkenean hasi zen Antzerki Astea. Harrobiaren txanda izan zen, DBHko ikasleena, hain zuzen ere.

Hauek bi saio egin zituzten, bata goizean ikasleentako haurrei zuzendua eta bestea arratsaldean adin guztiei zuzendua.

DBHko bi taldeek trebatu-sun handia erakutsi zuten taula gainean.

DBH 1 eta 2 mailako taldeak *Inprobizaketak* lana eskaini zuten. Bi taldetan banaturik publikoak jarritako gaia eta estiloa eman behar zioten haien inprobisazioari. Honela, hipoteka zer den azaldu zuten Edurne Zuri izan ziren edo Cantiflasen papera cowboy pelikula batean ere burutu zuten.

Gainera, ikusleak ziren inprobisaketa guztien ostean puntuazioa ematen zutenak. Azkenean, berdinketa egon zen.

DBH3 eta 4ko gazteek, ordea, *Camp Rock* filma musikaren zatiak taularatu zituzten eta zuzenean abeste-

ra ausartu ziren, horrek dakarren arriskuarekin.

Hala ere, saio entretenigarria egin zuten eta ikusleek ongi eskertu zuten haien lana txalo zaparrada batekin.

Helduen lanak

Aurten helduen taldeek jarraian eskaini zituzten beraien lanak.

Lehenbizikoak *Holako kontuk... eta komerik* lana ikusi zen taula gainean. Esketx ezberdinez osatutako antzezlanak izan zen. Gai asko jorratu zituzten: seme-alaben harremana gurasoekin, teknologia berriak ere erabili zituzten... ordu beteko saio polita eskaini zuten.

Ondoren *Etxe hauetan... jakin da* lana eskaini zuten. Antzezla hau orain bi urte taularatu zen lehenengo aldiz. Orain taldeak berreskuratu egin du, beste herritara eramateko asmoz. Aurreratu digute urrian Usurbilen eskainiko dutela.

Martxan da beraz, esan bezala antzerki astea. Hurrengo emanaldia ekainaren 8an izango da, iluntzeko 19:00etan. •



Inprobizaketak lana eskaini zuten DBHko 1. eta 2. mailako gazteek.



Camp Rock DBHko 3. eta 4. mailako gazteek taularatu zuten.



Holako kontuk... eta komerik, esketx ezberdinez osatutako lana izan zen.



Etxe hauetan... jakina da, kartzelako bizimodua taularatu zuten.

Arg.: J. Tokero

ELUSKO JAURLARITZA HEZKUNTZA, UNIVERSITATEA ETA IKERKETA SAILA	GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN	IES Hernani BHI A. Iturriaga - K. Labaka	AKROMA ER Net

ELEKTRIZITATEA • Instalazio elektriko eta automatikoak (Erdi Maila) • Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)	MEKANIKA • Mekanizazioa (Erdi Maila) • Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa) (Goi Maila)
A. ITURRIAGA • Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 • Faxa: 943 552271 • 20120 HERNANI K. LABAKA • Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 • Faxa: 943 330550 • 20120 HERNANI institutua@hernanibhi.com • www.hernanibhi.com AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 12ra	